

Donostian, Diputaziñoan, bildu dira Aingeru Irigaray, buruaren ordez, Arrue, Lekuona, Mitxelena jaun euskaltzaiñak. Aita I. Larrañaga Pingliang-go apezpiku jauna, Loidi, Zugasti, San Martin, Etxaniz eta Irigoyen jaun urgazleak.

Oi dan otoitzagaz asi da batzarra.

Aurreko batzarreko agiria irakurri da eta ontzat artu da.

Jon Mirande jaunak Euskaltzaindiari zuzendu deusan karta bat irakurri da. Bertan esaten da euskaltzain izendatua izateko bere alde presentatu dan kandidatu-reari uko egiten deusala oraingo eta geroko, lenengo momentuan bere kautan ontzat artu baeban be. Urgazle izentau zanean emon jakon diplomea atzera biurtu dau eta urgazle izateari be uko egiten deutso. Euskaltzaindia jakitun gelditzen da bera euskaltzain izentetearen gaiñean diñoanaz. Urgazletzea, ostera, Euskaltzaindiak betiko emon utsan, oiturea dan legez, eta Euskaltzaindiarentzat beti urgazle izango da.

Ondarroako alkate jaunaren karta bat irakurri da gureari erantzunaz. Diño prest dagozala aurrerantzean be umeen arteko sariketak egiteko.

Loiola-ko erradioak bialdu dauen karta bat irakurri da. Bertsolarien txapelketa bat egiten ari dira eta aren barri emoten dabe. Erantzun bekie atsegin biziz artzen dituzala Euskaltzaindiak daukiezan asmoak.

Aita Joseba Intxausti-k bialdu dauen karta bat irakurri da. Izlarien billa ibili da itzaldi batzuk prestau aal izateko eta bi topau ditu itz egiteko prest. Alegiñak egin beziz Donostian edo beste nonbait itzaldiok egin daiezan.

“Caja de Ahorros Provincial de Guipúzcoa”-ren karta bat irakurri da. Ontzat artu dabe amar milla pesetako sari bat sortzea urtero emoteko. Bost milla pesetak “Lizardi” saria orniduko dabe olerkarien maillan ari direanentzat. Beste bost milla pesetak lau sari bertsolarien maillan ari direanentzat. Eskerrak emon bekiez.

Irigoyen jaunak diño zarauztarrakaz berba egin dauela eta bagillaren 17-an gura leukiela sariak partidu daitezaz. Bide batez egun orretan jai batzuk egingo leukiez “Lizardi” zanaren gorazarrez bere jaiotetxean oroitarri bat ipiñiaz. Oroitarria ipinteko baimena Euskaltzaindiak eskatu daian gura dabe. Alan egin bedi. Bergaratarrak euren errian egitea gura eben, baiña zarauztarrak aurretik eskatuta eukien eta datorren urterako itxi bedi Bergara-koa.

Amsterdam-en egingo dan “VIII^e Congrès International de sciences onomastiques”-erako gomitu bat artu da. Datorren urteko Aguztuan izango da.

Irigoyen jaunak diño Deba-tik deitu deusiela eta Bagilleko domeka batean bertsolarien txapelketa bat egin gura leukiela igaz legez. Baiña Euskaltzaindiak Gipuz-

koako txapelketa bat egin gura baleu gogoz ikusiko leukiela euren errian be saio bat egitea. Datorren batzarrean erabagi bedi txapelketearen kontua eta orduan erantzun bekie zelan egin leitekean.

Egin bekie “Caja de Ahorros Vizcaina”-ri eskabidea Bizkaiko bertsolarien bosgarren txapelketea egiteko dirua ta kopea emon daizan.

Euskera aldizkaria agertu da. Irigoyen jaunari eskerrak emon bekiez egin dauen lan bikaiñagaitik.

Beste barik oi dan otoitzagaz amaitu da batzarra.

A. Irigaray

L. Mitxelena